Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2026ko ekainaren 10a, asteazkena — 107 — Miércoles, a 10 de junio de 2026

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ORDIZIAKO UDALA

*Ordiziako irabazi asmorik gabeko kultur erakundeen kultur proiektuak eta 2026. ekitaldian 25., 50., 75., urteurrena edo mendeurrena ospatzen duten taldeen programa bereziak finantzatzera zuzendutako dirulaguntzen oinarriak eta deialdia onartzen duen 2026/05/27ko Alkate Dekretuaren laburpena. BDNS (identif.): 908882.*

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/908882).

*Lehenengoa. Dirulaguntzaren xedea eta baldintzak.*

Deialdi honen helburua ondorengo programak finantzatzera zuzendutako dirulaguntzen emakida baldintzak arautzea da:

Ordiziako irabazi asmorik gabeko kultur erakundeen kultur proiektuak.

2026. Ekitaldian 25., 50., 75. urteurrena edo mendeurrena ospatzen duten taldeen programa bereziak.

*Bigarrena. Dirulaguntzaren xede diren kredituak eta aurrekontu-partida.*

Programa honen helburu diren dirulaguntzetarako esleitutako zenbatekoa 6.000 € da, eta aurrekontuko 481.03.912.00.0311 (1.000 €) eta 481.03.334.00.0133 (5.000 €) zenbakidun partiden kontura finantzatuko da.

*Hirugarrena. Dirulaguntza emateko prozedura.*

Dirulaguntza norgehiagokako araubidean emango da.

*Laugarrena. Onuradunek dirulaguntza lortzeko bete behar dituzten baldintzak eta horiek egiaztatzeko modua.*

Dirulaguntzen onuradunek honako betebeharrak bete beharko dituzte:

Gizarte Segurantzarekiko, Ogasunarekiko eta Ordiziako Udalarekiko zerga betebeharrak egunean izatea.

Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan adierazitako kasuren batean ez egitea.

Udalean jakinaraztea edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatutik jaso direla xede bereko dirulaguntzak diru-sarrerak edo baliabideak.

Dirulaguntza ematerakoan kontuan hartutako edozein gorabehera objektibo zein subjektibo aldatuz gero, horren berri Udalari jakinarazi beharko dio.

Berdintasuna: 1/2023 Legegintzako Dekretuak, martxoaren 16koak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duenak, xedatutako printzipio orokorrak betetzea eta hizkuntzaren eta irudien erabilera sexistarik ez egitea, zehazkiago:

## AYUNTAMIENTO DE ORDIZIA

*Extracto del Decreto de alcaldía de 27/05/2026, por la que se convocan las subvenciones para proyectos culturales de entidades culturales sin ánimo de lucro de Ordizia y para programas especiales de grupos que celebren su 25, 50, 75 aniversario o centenario durante el 2026. BDNS (identif.): 908882.*

De conformidad con lo previsto en los artículos 17.3.b y 20.8.a de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, se publica el extracto de la convocatoria cuyo texto completo puede consultarse en la Base de Datos Nacional de Subvenciones (https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/908882).

*Primero. Objeto, condiciones y finalidad de la subvención.*

Es objeto de la presente convocatoria la regulación de las condiciones de la concesión de subvenciones destinadas a la financiación de los siguientes programas:

Proyectos culturales de entidades culturales sin ánimo de lucro de Ordizia.

Programas especiales de grupos que celebren su 25, 50, 75 aniversario o el centenario durante el 2026.

*Segundo. Créditos y partida presupuestaria a los que se imputa la subvención.*

El importe económico asignado para las subvenciones objeto del presente programa asciende a la cantidad de 6.000 €. y se financiará con cargo a las partidas presupuestarias 481.03.912.00.0311 (1.000 €) y 481.03.334.00.0133 (5.000 €).

*Tercero. Procedimiento de concesión de la subvención.*

La subvención se concederá en régimen de concurrencia competitiva.

*Cuarto. Requisitos que deben reunir las personas beneficiarias para la obtención de la subvención y forma de acreditarlos.*

Las personas beneficiarias de las subvenciones deberán cumplir con las siguientes obligaciones.

Hallarse al corriente de sus obligaciones tributarias con la Seguridad Social, Hacienda y el Ayuntamiento de Ordizia.

No encontrarse en cualquiera de los supuestos señalados en el artículo 13 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones.

Comunicar a la entidad concedente la obtención de otra u otras subvenciones, para la misma finalidad procedentes de otra Administración o Ente Público estatal o internacional.

Comunicar al Ayuntamiento la notificación de cualquier circunstancia tanto objetiva como subjetiva que hubiese sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención.

Igualdad: cumplir los principios generales del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la igualdad de mujeres y hombres, y no hacer uso sexista del lenguaje y ni de las imágenes y más concretamente:

EK\CV GAO-I-2026-03660

Dokumentazio guztiak, publizitateak, irudiak edo materialek hizkuntzaren erabilera ez sexista erabili behar izango dute, emakumeen edozein irudi diskriminatzaile edo estereotipo sexistak saihestu eta sustatu berdintasun-balioekiko irudia, orekadun presentzia aniztasuna, erantzun kidetasuna eta roletako eta genero-identitateetako aniztasuna.

Proiektuaren azken memoriak diruz lagundutako jardueran parte hartu duten pertsonen eta horretarako kontratatu direnen sexuaren araberako informazioa jasoko du.

Euskara: Diruz lagundutako jarduerari buruz, pertsona onuradunak euskara behintzat erabili beharko du ekintzan bertan eta argitaratutako iragarki, ohar, jakinarazpen eta abarretan.

Era berean diruz lagundutako jarduerak aintzakotzat hartuko ditu Euskararen Udal Ordenantza, Ordiziako Udalaren Euskararen Erabilera Plana, gainerako araudia eta Ordiziako herriaren errealitate soziolinguistikoa.

Ekintzei lotutako publizitatean Ordiziako Udalaren babesletza adierazi beharko da, Ordizia Bizi Herria logoa erantsiz.

Onuradunek beti ere, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluak ezartzen dituen betebehar guztiak bete beharko dituzte.

*Bosgarrena. Laguntzak emateko prozedura antolatzeko, bideratzeko eta ebazteko eskumena duten organoak.*

Ordiziako Udaleko Kultua sailak bideratuko du prozedura.

Laguntzak ebazteko eskumena duen organoa Alkatetza da, egin ditzakeen eskuordetzei kalterik egin gabe.

*Seigarrena. Eskabideak aurkezteko epea.*

Eskariak aurkezteko epea 20 lanegunekoa izango da, dirulaguntza deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

*Zazpigarrena. Ebazteko eta jakinarazteko epea.*

Behin betiko ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa da, dagokion deialdia argitaratzen denetik aurrera.

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira, ebazpena aldatu ahal izango da.

*Zortzigarrena. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak eta informazioak.*

Eskariak Dirulaguntza eskari normalizatuaren bidez egingo dira.

Eskabidearekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

Dirulaguntza eskatzen duen erakundearen curriculuma: Kideak, helburuak, egiten dituen jarduerak, etab.

Egingo diren jardueren gastuen eta sarreren aurrekontua.

Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak, eskatzaileak uko egin badio Udalak dokumentu horiek ofizioz kontsultatzeari. Baita NAN/IFZren kopia ere.

Edozein kasutan, aurreikusitako ekimenari dagokion dokumentazioaz gain, entitate eskatzaileei behar besteko informazio osagarria eskatu ahal zaie aurkeztutako ekimena behar bezala baloratu ahal izateko.

En toda la documentación, publicidad, imágenes y materiales tendrá que hacerse un uso no sexista del lenguaje, descartándose cualquier imagen discriminadora o que basada en estereotipos sexistas y en su lugar fomentar el uso de imágenes igualitarias, con presencia equilibrada, plural, corresponsable que reflejen la pluralidad de roles e identidad de género.

La memoria final tiene que recoger además del número de personas usuarias de la actividad subvencionada, datos en función del sexo, tanto de las personas usuarias como de las contratadas para la actividad.

Euskara: La persona o entidad beneficiaria de la subvención objeto de la presente convocatoria deberá hacer uso al menos del euskera en la propia actividad y en todos los anuncios, avisos, notificaciones, etc.publicados en torno a la actividad subvencionada.

Asimismo, para el desarrollo de la actividad subvencionada se prestará atención a los preceptos establecidos en la Ordenanza Municipal del Euskara, Plan de Euskara y demás normativa relacionada, al igual que a la realidad sociolingüística del municipio de Ordizia.

En la publicidad relativa a las actividades deberá constar expresamente el patrocinio del Ayuntamiento de Ordizia, adjuntando el logotipo de Ordizia Bizi Herria.

Las personas o entidades beneficiaria deberán cumplir todas las obligaciones establecidas en el artículo 14 de la Le General 38/2003, sobre las Subvenciones.

*Quinto. Órganos competentes para la ordenación, instrucción y resolución del procedimiento de concesión.*

La instrucción del procedimiento se llevará a cabo por el departamento de Kultura del Ayuntamiento de Ordizia.

El órgano competente para la resolución de las ayudas es la alcaldía, sin perjuicio de las delegaciones que pueda efectuar.

*Sexto. Plazo de presentación de solicitudes.*

El plazo de presentación de solicitudes será de 20 días hábiles a partir del siguiente al de la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

*Séptimo. Plazo de resolución y notificación.*

El plazo máximo para resolver y notificar la resolución definitiva es de seis meses a partir de la publicación de la correspondiente convocatoria.

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención podrá dar lugar a la modificación de la resolución.

*Octavo. Documentos e informaciones que deben acompañarse a la petición.*

Las solicitudes se formularán mediante Impreso de solicitud normalizado de subvenciones.

Deberán acompañarse a la solicitud los siguientes documentos:

Curriculum de la entidad solicitante: Componentes, objetivos, actividades desarrolladas, etc.

Presupuesto de gastos e ingresos de las actividades que se vayan a realizar.

Certificados de estar al corriente en las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social, cuando la persona solicitante se haya opuesto a la consulta de oficio de dichos documentos por parte del Ayuntamiento. Así como copia del DNI/NIF.

Además de la documentación referida a la iniciativa prevista, se podrá requerir a la entidad solicitante que facilite la información complementaria que se estime oportuna para valorar adecuadamente la iniciativa en cuestión.

EK\CV GAO-I-2026-03660

*Bederatzigarrena. Eskaerak baloratzeko irizpideak.*

Dirulaguntza eskuratu ahal izateko, erakundeek ondoren adieraziko diren irizpide eta baremoekin bat etorriko den puntuazioa lortu beharko dute:

a) Proposatutako programaren ezaugarriak: 40 puntu gehienez ere, ondorengo aspektuak kontuan izanik:

a.1) Programak garatzen den eremu espezifikoari egiten dion ekarpena (10).

a.2) Aurrera eramango den programaren hartzaileak, beste erakunde, herritar nahiz kultur eragileren inplikazio maila (5).

a.3) Proposatutako programaren ibilbidea eta finkatzea (5).

a.4) Ekintza horrek erdiguneaz gain auzoetan eragina izatea (5).

a.5) Egitarauen berrikuntzak eta egitarau berriak txertatzea (10).

a.6) Proposatutako jardueretan kanpoko jatorria dutenen partehartzea bultzatzeko bideak martxan jartzea (5).

b) Erakundearen irmotasuna eta ezaugarriak: 40 puntu gehienez ere, ondorengo aspektuak kontuan izanik:

b.1) Udalaren ekimenetan parte hartzea (15).

b.2) Erakunde eskatzailearen dedikazioa eta duen giza taldea (15).

b.3) Urtean zehar antolatzen dituen ekintzak (10).

c) Erakundearen finantza baliabideak; 10 puntu. Aurkeztutako aurrekontua jarduera edo proiekturako egokia izatea.

Edonola ere, eskatzaileek gutxienez 45 puntu lortu beharko dituzte, programa honetan jasotako dirulaguntzak eskuratu ahal izateko.

*Hamargarrena. Jakinarazteko edo argitaratzeko bidea.*

Eskatzaileak eskabidean adierazitako tokian eta moduan egingo dira jakinarazpenak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. artikuluan ondorio horietarako ezarritakoa kontuan hartuta.

*Hamaikagarrena. Errekurtsoak.*

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko Alkateari, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzeko errekurtsoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Ordizia, 2026ko maiatzaren 27a.—Adur Ezenarro Agirre, alkatea. (3660)

*Noveno. Criterios de valoración de solicitudes.*

Para acceder a la subvención, las entidades deberán obtener una puntuación conforme a los siguientes criterios y baremos:

a) Características del programa propuesto: Un máximo de 40 puntos, teniendo en cuenta los siguientes aspectos:

a.1) Aportación que realiza el programa al ámbito específico en que se desarrolla (10).

a.2) Destinatarios del programa a desarrollar, proyección humana del programa, nivel de implicación de otras entidades, ciudadanos/as y agentes culturales (5).

a.3) Trayectoria y afianzamiento del programa propuesto (5).

a.4) Que la actividad afecte no solo al centro sino también a los barrios del municipio (5).

a.5) Inclusión de novedades en los programas y de nuevos programas (10).

a.6) establecer canales para promover la multiculturalidad en las actividades propuestas (5).

b) Solidez de la asociación y características de la misma, como máximo 40 puntos, considerando los siguientes aspectos:

b.1) Participar en las iniciativas del Ayuntamiento (15).

b.2) Dedicación de la entidad solicitante y su equipo humano (15)

b.3) Actividades que organiza durante el año (10)

c) Recursos financieros de la entidad; 10 puntos. Adecuación del presupuesto al proyecto presentado.

En todo caso, los solicitantes deberán obtener un mínimo de 45 puntos para poder conseguir las subvenciones recogidas en el presente programa.

*Décimo. Medio de notificación o publicación.*

Las notificaciones se practicarán en el lugar y por el medio que el solicitante haga constar a tal efecto en la solicitud, teniendo en cuenta lo establecido a estos efectos en el artículo 41 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

*Décimoprimero. Recursos.*

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante la Alcaldía, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Ordizia, a 27 de mayo de 2026.—El alcalde, Adur Ezenarro Agirre. (3660)

EK\CV GAO-I-2026-03660